

Eguberri kontu bat

Puntualki, mahaia apurka-apurka betetzen hasi zen guztiak urte zahar gaueko afarira iristen ziren heinean. Kandela gorri eder baten sugarrak astinduz ongi etorria ematen zien. Eguberri kantuen musika, apaingarriz beteriko pinutik gora igoz, jangela betetzen zuen. Argiek dizdira egiten zuten. Gomazko pilota batek, lehertarazitako begiak zopa plateraren hondoan dizdira egiten zuen. Jaten jarraitu nuen, ez ikusiarena eginez. "Populazioaren ehuneko 80ak antsietate, estres edo melankolia pairatuko ditu eguberrietan zehar. Amaya Terrón sikologoak festak norberaren egoera pertsonal eta ekonomikora egokitzea gomendatzen du. Aditu honek gogorarazten digu zoriontasuna ez dagoela jasotzen diren oparien kantatite eta kalitateari lotua" (*La Vanguardia*, 2012ko abenduaren 5a). Bere buruaz beste egin zuen gizon batek nire alboan eseri ahal zitekeen galdetu zidan.

Ez nion ezetzirik esan.

(...)

JUAN ÁLVAREZ M.P. (45 urte), LHospitalet de LLobregat, 2010eko azaroaren 12a. Bere emazte eta alabarekin okupaturik zeukaten etxebizitzatik bota behar zuten. Kanean bertan urkatu zuen bere burua.

ISABEL (56 urte), Malaga. 2012ko uztailaren 23a. Emakume elbarritua. Kalera jauzi egin zuen hamaitagarren pisuko bere etxebizitzatik.

X, Las Palmas de Gran Canaria. 2012ko urriaren 23a. Zubi batetik egin zuen salto lana galdú eta bankuak kaleratzea jakinarazi zionean.

JOSÉ MIGUEL DOMINGO (54 urte), Granada. 2012aren urriaren 25a. Bere burua urkatu zuen kaleratua izan baino momentu batzuk lehenago.

AMALIA EGAÑA (53 urte), Barakaldo. 2012ko azaroaren 9a. Laugarren pisuko leihotik jauzi zen, bere etxebizitzatik kaleratua izan behar zuenean.

RICARDO G. M. (50 aurre), Cordoba. 2012ko azaroaren 6a. Ezin zuen alkilerria ordaindu, biktimak, (...)

Azken finean, suizidatu bat behartsu bat baina hobeagoa da. Behartsu guztiak berdinak dira eta gainera beti dabilta eskean. Nahiz eta beregandik zetorren hotza sentitu, nire buruari bizitza dagoen bitartean itzaropena ere dagoela esan nion. Eta jaten jarraitu nuen. Postreen ordua iritsi zen orduan. Gizonak, eguberri kantua entzutea eragozten ziguten hitz arraroak oihukatzen zituen. Zutik jarri eta gaitzki-esaka hasi zitzaigun. Oso zakarra zen, guztiz lotsagabea. "Hitzen, ekintzen eta heuren gauzatzearen arteko distantzia modu esponentzial batean hazten ari da. Hil behar gara, kasu honetan geure borondatez, manipulazio hau jasota gera dadin. Odolez sinatu behar dira ukabilak bezelakoak diren egia hauek ezagutuak izan daitezten" (Javi Ruiz. Gasteiz, 2008ko martxoaren 10a. 1976ko greban parte hartu zuen, non poliziak bost langile akatu zituen). "Nola adinean sartuta nagoen, ezin dut bestela erreakzionatu (hala ere, Greziako nire herri-kide batek kalashnikov bat hartu izan balu, nik atzetik segiko nioke) eta nire biziari duintasunez akabera ematea beste aukerarik ez dut ikusten, nahiago baitut hori, bizirik irauteko zabor artean janari bila miaka ibili beharra baino" (D. Christoulas, Atenas, 2012ko apirila. Buruan tiro bat emanaz bere buruaz beste egin zuen). Bizitzeko hil behar izatea... Orduan deitu behar izan nion poliziari. Felip Puig, Barne Kontseilari-zako arduraduna, laster iritsi zen pertsona arrotz honengandik ni babestera. Odolak zipriztindu egin zuen.

Suizidioa arma politikoa bilakatu da gaur egun.

Halere, suizidio onena heriotzik gabeko suizidioa da. Txistua botatzen jarraitzea ahalbidetzen digu.